

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Tokiko Gobernu Batzarra. Aldatzea Tokiko Gobernu Batzarreko kideak

Ikusi egin da Toki Araubidearen Oinarriak arautzeko Legearen 23. eta 86. artikuluetan nahiz Tokiko Gobernu Batzarraren osaera, eskuduntzak eta ohiko bilkurak arautzeko Araudiaren 32., 42. eta 43. artikuluetan xedatua.

Kontuan hartuta 2019ko uztailaren 1eko 1611 dekretua, Tokiko Gobernu Batzarra eratzten duena, eta horren ondorengo aldaketak. Berariaz adierazten da:

“Lehena. Udal honetako Tokiko Gobernu Batzarreko kide izendatzea, alkate-lehendakari honen lehendakaritzapean, zinegotzi hauek:

- Joseba Andoni Amondo Escuza (EAJ-PNV udal talde politikoa).
- Ander Larrinaga Saiz (EAJ-PNV udal talde politikoa).
- Lamia Arcas Nogales (EHBILDU udal talde politikoa).
- Nerea González García (OMNIA udal talde politikoa).
- María Dolores Muriel Aroca (Laudioko Sozialistak udal talde politikoa)”

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 1985/7ko Legearen 21. artikulua emandako ahalmenak erabiliz, alkate-udalburuak hau

EBATZI DU

Lehenengoa. 2019ko uztailaren 1eko 1611 Dekretua aldatzea, Lamia Arcas Nogales Tokiko Gobernu Batzarreko kide kargutik kenduz, eta haren orde Nagore Gomara Picaza izendatzea. Horrenbestez, Tokiko Gobernu Batzarraren osaera berria honako hau da:

- Joseba Andoni Amondo Escuza (EAJ/PNV udal talde politikoa).
- Ander Larrinaga Saiz (EAJ-PNV udal talde politikoa).
- Nagore Gomara Picaza (EHBILDU udal talde politikoa).
- Nerea González García (OMNIA udal talde politikoa).
- María Dolores Muriel Aroca (Laudioko Sozialistak udal talde politikoa).

Bigarrena. Gainerakoan, 2019ko uztailaren 1eko 1611 Dekretuari eustea, bai eta ondorengo aldaketei ere, zeinaren bidez Tokiko Gobernu Batzarra eratzten baita, alkate-udalburuaren eskumen delegatuak barne, bai eta ohiko bilkurak egiteko eguna eta ordua ere, ebazpen honen eraginpean ez dagoen guztian.

Hirugarrena. Argitaratzea erabaki hau ALHAOn, Udal Antolamendurako Araudiaren 33.2 artikuluan zein Antolamendu eta Funtzionamenduaren Araudiaren 53.3 artikuluan xedatua betetze aldera.

Laugarrena. Jakinaraztea erabaki hau interesdunei, udal-talde politikoen bozeramaileei, nahiz udal arloei, eta aditzera ematea Udalbatzaren Osoko Bilkurari, egingo duen hurrengo bilkuran.

Laudion, 2022ko maiatzaren 5ean

Alkate-udalburua
ANDER AÑIBARRO MAESTRE